

AZPEITIA / Ipuin kontaketa saio berria izango da bihar Udal Liburutegian

AZPEITIA. DV. Joan den astelehenean bezala, bihar ere ipuin kontalariekin hitzordua izango da Enparan Dorretxeko ha-ur eta gaztetxoek udal liburutegian arratsaldeko 6:00etan. Irailaren 26an ikasturte honi dagokion ipuin kontaketa saioen denboraldiari hasiera eman zitzaionean bezala, bihar ere Pello Añorga etorriko da Az-peitira saioa eskaintzera, Le-hen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoei. Saioak hiru ordu laurdeneko iraupena izango du.